

## VISESAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZU PUBLIKOAK

Bere eginkizunean adierazten den bezala, Visesa Eusko Jaurlaritzaren menpeko eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari atxikitako sozietate publikoa da; lurzoruaren eta etxebizitzaren arloko lurralde-politika garatzea da bere eginbeharra, beste erakunde batzuekin elkarlanean.

Lurzorua kudeatu ez ezik, babes publikoko etxebizitza jasagarriak ere sustatzen ditu bai jabetzan, bai alokairuan. Etxebizitza horiek EAEn Eusko Jaurlaritzak ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta etxebizitza behar duten kolektiboei bideratuta daude.

Era berean, Visesak hiria berroneratzeko eta berritzeko prozesua bultzatu, sustatu, lagundu eta bertan parte hartzen du bete-betean. Horrez gain, etxebizitzak eta azpiegitura publikoak ere zaharberritzen ditu irisgarritasuna eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta, lurralde-orekaren ikuspegitik, lurralde iraunkorra sustatzeko.

Herritarrei zerbitzu horiek emateko hainbat bide ditu: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako bulegoak, web orrialdea, call centerra eta posta elektronikokoa (ikus helbidea, ordutegia eta kontaktua).

Zerbitzu horiek gauzatu ahal izateko, honako baliabide hauek herritarren eskura daude: hiru lurralde-bulego (Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan), web orrialdea, call centerra eta posta elektronikoa (ikus tokia, ordutegia eta kontaktua).